

Alcatel

MIFI



Euskaltelek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburua



Erabiltzailearen eskuliburua

Segurtasun-neurriak

Irakurri arretaz segurtasun-neurriak, haririk gabeko gailua ondo eta modu seguruan erabiltzen duzula ziurtatzeko.



Ez piztu gailua hura erabiltzea debekatuta badago edo interferentziak edo kalteak eragin baditzake.



Bete ospitale eta osasun-etxeetako arauak. Itzali gailua tresna medikoetatik gertu zaudenean.



Itzali gailua hegazkinean zaudenean. Baliteke gailuak interferentziak eragitea hegazkinaren kontrol-seinaleetan.



Itzali gailua doitasun handiko gailu elektronikoetatik hurbil zaudenean. Baliteke gailuak halako gailuen errendimenduari eragitea.



Ez saiatu gailua edo osagarriak desmuntatzen. Langile kualifikatuek soilik konpon dezake gailua.



Ez jarri gailua eta haren osagarriak eremu elektromagnetiko handiko lekuetan.



Ez jarri biltegitratze-ekipo magnetikorik gailutik hurbil. Gailuaren erradiazioak haietan gordetako informazioa ezaba dezake.



Ez jarri gailua temperatura altua dagoen lekuetan, eta ez erabili gas sukoiak dauden lekuetan; adibidez, gasolindegietan.



Ez utzi gailua eta haren osagarriak haurren eskuetan. Ez utzi hurrei gailua erabiltzen aurretik jarraibiderik eman gabe.



Onartutako bateriak eta kargagailuak soilik erabili, leherketarik ez izateko.



Kontsultatu gailuaren erabilerari buruzko lege eta arauak. Gailua erabiltzean, errespetatu hirugarrenen pribatutasun- eta lege-eskubideak.

Temperatura 0 °C eta 50 °C artekoa eta hezetasuna % 10 eta % 90 artekoa den lekuetan soilik erabili ekipoa. Temperatura -10 °C eta 70 °C artekoa eta hezetasuna % 10 eta % 90 artekoa den lekuetan gorde ekipoa.

Edukiak

Segurtasun-neurriak	2
1. Deskribapen orokorra	5
Sistemaren betebeharrak	5
Pantailaren deskribapena	5
WiFi moduko konexioa	6
2. Erabiltzailearen web-interfazearen konfigurazioa	6
Saioa hastea konfigurazio-orrian	7
Orri nagusia	7
3. Konfigurazio azkarra	9
4. Konexioa	9
Konexioaren egoera	9
Erabilera-historia	10
Profila administratzea	10
Sarea	10
PINa administratzea	11
Gailua konektatuta	11
5. SMSak	11
6. SD txartela	12
Artxiboak administratzea	13
Partekatzea	13
7. Konfigurazioa	14

WiFi-a	14
WPSa	14
Bideratzailea	15
Hizkuntza	15
Diagnostikoa	16
Aurreratua	16

Bateria kargatzea **16**

Bermea **17**

Galderak eta erantzunak **18**

Ohartarazpenak **22**

1. Deskribapen orokorra

Gailu honetan, banda zabal mugikorreko Interneteko konexioa erabil dezakezu WiFi bidez. WiFi-a daukaten gailu gehie- nei konekta diezaiekezu gailu hau (adibidez, PCari, joko-gailu mugikorrei, smartphoneei, tabletei...). Gailu hau ezin da erabili aire-fluxu mugatua dagoen leku txikietan, adibidez, txaketako poltsikoan, poltsa barruan...

1.1 Sistemaren betebeharrak

Gailu hau erabiltzeko, WiFi-a duen gailu bat izan behar duzu (Wi-Fi 802.11 b/g/n-rekin bateragarria), eta Interneteko nabigatzailea.

1.2 Pantailaren deskribapena

Hona hemen pantailaren deskribapena:



1.1 irudia

1. Sarearen seinalea (ikur grafiko dinamikoa)
2. Sare-mota (3G+/3G/2G)
3. SMSen egoera (beteta, irakurri gabe, sarrerakoak)
4. Konexioaren egoera (konektatuta eta deskonektatuta)
5. WiFi-a (piztuta/itzalita, konektatutako erabiltzaile-kopurua/WPS konexioa)
6. Bateria-maila (ikur grafiko dinamikoa/kargatzen)
7. Erregistratutako sarearen izena
8. Roaming-aren egoera
9. Erabiltzen ari den bolumena (MB/GB)
10. Markaketa-modua (eskuzkoa/automatikoa)

1.1 taula

Pantailaren deskribapena:

Kategoria

Ikonoa

Seinalearen intentsitatea



1. seinaletik seinale bikaineraino

Sare-mota

2G: Edge/GPRS. 3G: UMTS/HSDPA/HSUPA 3G+: HSPA+






SMSen egoera

- SMSa eskuragarri
- SMSa irakurri gabe
- SMSa ez-eskuragarri



Konexioaren egoera

 konektatuta



WiFi-aren egoera

 : WiFi-a aktibatuta
 : WiFi-aren erabiltzaile-kopurua
 : WPSa aktibatuta
 : WPSa ondo konektatu da
 : errorea WPSa konektatzean

Bateria

 : Maila, 1etik 4ra
 : bateria gutxi

Markatzeko modua

 : automatikoa
 : eskuzkoa

Roaming-a

 : Roaming-eko sarean

Oharra. informazioa 20 segundoz bistaratzen da, eta, gero, pantaila itzali egiten da. Aktibatzeko, sakatu labur WPS botoia.

1.3 WiFi moduko konexioa

1. urratsa.

Erabili WiFi-a integratuta daukan gailuaren WiFi-aren kudeatzailea sarearen izena hautatzeko (SSID).

- Windows duen PC batean. Sakatu, saguaren eskuineko botoiarekin, ataza-barran dagoen **Conexiones de red inalámbricas**, eta hautatu **Ver redes disponibles**. Eskuragarri dauden sareen zerrendan, hautatu SSID.
- Mac ordenagailu batean. Goitibeherako menuan, hautatu **Preferencias del Sistema -> AirPort Seleccione SSID**.
- iOS gailu batean. **Ajustes->Wi-Fi**. Eskuragarri dauden sareen zerrendan, hautatu SSID.
- Android gailu batean: **Ajustes->Conexiones de red inalámbricas->Ajustes Wi-Fi**.
- Eskuragarri dauden sareen zerrendan, hautatu SSID.

2. urratsa.

Segurtasun-pasahitza eskatzen zaizunean, sartu WiFi-aren gakoa.

2. Erabiltzailearen web-interfazearen konfigurazioa

2.1 Saioa hastea konfigurazio-orrian

Ireki nabigatzailea, eta sartu <http://192.168.1.1> helbidea.

Orri hau bistaratuko da:

The screenshot displays the Alcatel Onetouch web interface. At the top, there is a blue header with the 'ALCATEL onetouch' logo and several status icons (signal strength, Wi-Fi, battery, etc.). Below the header is a navigation bar with tabs for 'Configuración rápida', 'Conexión', 'SMS', 'Tarjeta SD', and 'Configuración'. There are also 'Ayuda' and 'Cerrar' buttons.

The main content area is divided into two columns. The left column is titled 'Iniciar' and contains a 'Tarjeta SD' section with a dropdown menu for 'Idioma' (set to 'Español') and a password field labeled 'Contraseña'. Below this is an 'Iniciar' button. The right column is titled 'Estado de la conexión' and contains three sections: 'Conexión actual', 'Estado de la WAN', and 'Estado de la WLAN'.

Estado de la conexión			
Conexión actual			
Estado de la conexión:	Conectado		
Velocidad:	0.00 kbps	Duración:	0 día 0 hora 00 minuto
Estado de la WAN			
Dirección IP:	10.120.70.24	Nombre de la red:	CMCC
Estado de la tarjeta SIM:	SIM lista	Tipo de red:	HSDPA
Estado de la WLAN			
SSID:	Y580D_ED2D		
Seguridad:	Seguridad deshabilitada.		
Usuario(s):	0/10		


At the bottom of the page, there is a copyright notice: 'Copyright 2011-2013 TCT MOBILE INTERNATIONAL LIMITED. TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS.'

2.1. irudia

admin da saioa hasteko pasahitz lehenetsia.

2.2 Orri nagusia

Saioa ondo hasi ondoren, orri hau bistaratuko da:



2.2. irudia

Hona hemen ikonoen deskribapena:

Kategoria

Ikonoa

Seinalearen intentsitatea



Seinalerik ez izatetik bikaina izateraino

Konexioaren egoera



Deskonektatuta. Konektatuta

SMSak



Desgaituta Gaituta SMSak beteta Irakurri gabe

Bateria



Maila baxuenetik altueneraino

WiFi-aren egoera



WiFi-a aktibatuta

2.1. taula

3. Konfigurazio azkarra

Modo de conexión: Gailurako markatze-modua zehazteko. Eskuzkoa da lehenetsia.

SSID: gailuaren sareko izena ezartzeko.

Contraseña de inicio de sesión: saioa hasteko pasahitza ezartzeko.

Seguridad: WiFi konexioaren segurtasun-modua konfiguratzeko.

4. Konexioa

Eraman saguaren kurtsoa "**Conexión**" aukeraraino, eta egin klik nahi duzun elementuaren gainean.

Atal honetan, elementu hauek daude:

Estado de la conexión: uneko konexioa, WANaren egoera, WLANaren egoera.

Historial de uso: erabilitako datuak eta iraupena bistaratzeko.

Administración del perfil: kontuaren konfigurazioa administratzeko, besteak beste, zure gogoko sare-konexioa eta sarbide-puntuaren izena (APN).

Red: zure gogoko sarea hautatzeko eta konfiguratzeko.

Administración del PIN: PINa administratzeko da. Gaitu, desgaitu, aldatu edo ikusi egin daiteke.

Dispositivo conectado: konektatutako gailua bistaratzen du.

4.1 Konexioaren egoera

Egungo egoera

Activar perfil: hautatu gelaxkan, erabili nahi duzun profila.

Velocidad: 3G sareko uneko deskarga-abiadura.

Duración: uneko konexioaren iraupena.

Roaming: Roaming-eko sare batean zauden ala ez adierazteko.

WANaren egoera

Dirección IP: gailu honen IP helbidea.

Nombre de la red: erabiltzen ari den 3G sarea.

Estado de la tarjeta SIM: ninguna tarjeta SIM, tarjeta SIM no válida, bloqueo del PIN, bloqueo del PUK, tarjeta SIM lista.

Tipo de red: GPRS/EDGE/UMTS/HSDPA/HSUPA/HSPA+;

WLANaren egoera

SSID: gailuaren sarearen izena.

Seguridad: erabili den WiFi-aren zifratze-mota.

Erabiltzailea: gailu honetara konektatuta dagoen erabiltzaile-kopurua eta gehienezko gaitasuna.

4.2 Erabilera-historia

Sakatu **<Borrar historial>** informazio guztia ezabatzeko.

Sakatu **<Actualizar>** bistaratutako informazioa eguneratzeko.

4.3 Profila administratzea

Profil berri bat gehitzeko:

1. Sakatu **<Nuevo>**.
2. Sartu operadoreak emandako parametro zuzenak.
Oharra: Nombre del perfil/Nombre/APN eremuak betetzea nahitaezkoa da.
3. Sakatu **<Guardar>**.

Profil bat editatzeko:

1. Hautatu profila konexio-profilen zerrendatik.
2. Aldatu parametroak.
3. Sakatu **<Guardar>**.

Profil bat ezabatzeko:

1. Hautatu profila konexio-profilen zerrendatik.
2. Sakatu **<Eliminar>**.
3. **"¿Seguro que desea eliminar este perfil?"** elkarrizketa-koadroa bistaratuko da; sakatu **<Aceptar>**.
Oharra: Ezin da ezabatu profil lehenetsia.

Balio lehenetsi gisa definitzeko:

1. Hautatu profila konexio-profilen zerrendatik.
2. Sakatu **<Definir como predeterminado>**.
3. **"¿Seguro que desea establecer este perfil?"** elkarrizketa-koadroa bistaratuko da; sakatu **<Aceptar>**.
Oharra: profila profil lehenetsi gisa ezarri ondoren, (D) gehituko da, marka gisa.

4.4 Sarea

Modo de red: automático/solo 3G/solo 2G. Lehenetsia automatikoa da.

Selección de red: automática/manual. Lehenetsia automatikoa da.

Sare bat eskuz hautatzeko:

1. Sare-aukeran, hautatu **Manual**.
2. Sakatu **<Aplicar>**.
3. Sakatu **<Actualizar>** eskuragarri dauden sareen zerrenda ikusteko.
4. Hautatu sarea, eta sakatu **<Seleccionar>**, erregistratzeko.

Oharra: Zerbitzuetarako: 3G+ (HSPA+), 3G(HSUPA/HSDPA/UMTS), 2G(Edge/GPRS). Egoerarako: Activo (erregistratutako sarea), Disponible (sarea erabil daiteke).

4.5 PINa administratzea:

PINa gaitzeko:

1. PINa desgaituta badago, **<Habilitar>** sakatuz gero, PINa sartzeko orria bistaratuko da.
2. Sartu definitu nahi duzun PINa (zenbakiak soilik onartzen dira).
3. Sakatu **<Aplicar>**.

PINa desgaitzeko:

1. PINa gaituta badago, **<Deshabilitar>** sakatuz gero, PINa sartzeko orria bistaratuko da.
2. Sartu PIN zuzena.
3. Sakatu **<Aplicar>**.

PIN kodea aldatzeko:

1. PINa gaituta badago, **<Cambiar PIN>** sakatuz gero, PINa sartzeko orria bistaratuko da.
2. Sakatu aurreko PINa, PIN berria, eta berretsi.
3. Sakatu **<Aplicar>**.

Oharra: PIN kodea hiru aldiz gaizki sartzen baduzu, operadoreak emandako PUKa sartu beharko duzu.

4.6 Gailua konektatuta

Konektatutako gailua bistaratzen du.

Informazioa eguneratzeko, sakatu **<actualizar>**.

5. SMSak

Eraman saguaren kurtsorea "SMS" aukeraraino, eta egin klik nahi duzun elementuaren gainean.

Atal honetan, elementu hauek daude:

Recibidos: jasotzeko SMSen zerrenda bistaratzen du.

Escribir SMS: SMS berria idazteko.

Enviados: ondo bidali ez diren SMSen zerrenda bistaratzen du.

Borradores: bidalketan akatsen bat izan duten eta bidali ez diren SMSak gordetzen ditu.

Configuración de SMS: SMSen zentroaren zenbakia eta SMSak gordeko diren kokapena definitzeko.

SMSak irakurtzea

Sakatu ezkerreko botoiarekin SMSaren edukia, irakurtzeko.

SMSak bidaltzea

1. Eraman sagua "SMS" aukeraraino.
2. Sakatu, saguaren ezkerreko botoiarekin "**Escribir SMS**".
3. Sartu zenbakia eta edukia.
4. Sakatu **<Enviar>**.

SMSak birbidaltzea

1. Sakatu saguaren ezkerreko botoiarekin birbidali nahi duzun SMSaren edukia.
2. Sakatu **<Reenviar>**.
3. Sartu zenbakia.
4. Sakatu **<Enviar>**.

SMSei erantzutea

1. Sakatu saguaren ezkerreko botoiarekin erantzun nahi duzun SMSaren edukia.
2. Sakatu **<Responder>**.
3. Sartu edukia.
4. Sakatu **<Enviar>**.

SMSak ezabatzea

1. Sakatu saguaren ezkerreko botoiarekin ezabatu nahi duzun SMSaren marka.
2. Sakatu **<Eliminar>**.

SMS guztiak ezabatzea

1. Sakatu **<Marcar todo>**.
2. Sakatu **<Eliminar>**.

SMSak konfiguratzeko

Número del centro de SMS: zure operadoreak emango dizu.

Modo guardar SMS: SMSak non gordeko diren. SIM txartela da lehenetsia.

6. SD txartela

Eraman saguaren kurtsorea "Tarjeta SD" aukeraraino, eta egin klik nahi duzun elementuaren gainean. Atal honetan, elementu hauek daude:

Administración de archivos: nuevos/leer/eliminar archivos en la tarjeta SD.


Compartir: SD txartela partekatzeko modua zehatz daiteke.

6.1 Artxiboak administratzea

Karpeta bat irekitzeko:

Sakatu, saguaren ezkerreko botoiarekin, irekitzeko.

Karpeta berri bat sortzeko:

1. Sakatu .
2. Adierazi karpetaren izena.
3. Sakatu **<Aceptar>**.

Fitxategi bat kargatzeko:

1. Sakatu **<Buscar>**, kargatu nahi duzun fitxategia hautatzeko.
2. Sakatu **<Cargar>**

Fitxategi bat deskargatzeko:

1. Sakatu, saguaren ezkerreko botoiarekin, fitxategia, eta hautatu **Descargar**.
2. Hautatu kokapena, eta gorde.

Fitxategi bat edo karpeta bat ezabatzeko:

1. Egin klik kontrol-laukian.
2. Sakatu **<Eliminar>**.
3. “¿Seguro que desea eliminar?” elkarrizketa-koadroa bistaratuko da; sakatu **<Aceptar>**.

6.2 Partekatzea

Orri hau fitxategia atzitzeko modua eta partekatuko den fitxategia zehazteko erabiltzen da.

Solo USB: SD txartelean dagoen fitxategia USB kable bidez atzitzeko.

Acceso web: SD txartelean dagoen fitxategia web-nabigatzaile bidez atzitzeko.

Compartir tarjeta SD: Wi-Fi bidez konektatutako erabiltzaileek SD txartelean dagoen fitxategia atzitzeko.

Archivo que se compartirá: Wi-Fi bidez konektatutako erabiltzaileekin zer fitxategi partekatu den adierazten du.

Tipo de acceso: Wi-Fi bidez konektatutako erabiltzaileentzako atzitze-modu egokia definitzeko aukera ematen du.

7. Konfigurazioa

Eraman saguaren kurtsorea “Configuración” aukeraraino, eta egin klik nahi duzun elementuaren gainean. Atal honetan, elementu hauek daude:

Wi-Fi: Wi-Fi-aren parametroak definitzeko.

WPS: WPSrako erabilitako metodoa definitzeko.

Router: bideratzailearen parametroak definitzeko.

Idioma: erabiltzailearen web-interfazea zer hizkuntzatan agertzea nahi den definitzeko.

Diagnóstico: gailuaren informazioa bistaratzen du.

Avanzado: konfigurazioa gordetzeko eta biltegiratzeko.

7.1 WiFi-a

Orri honetan, Wi-Fi-aren parametroak konfiguratu ditzakezu.

Modo 802.11: modua hautatzeko; adibidez, 802.11 b/802.11 g/802.11 n.

SSID: Wi-Fi sarearen izena da, Wi-Fi sarea identifikatzeko erabiltzen dena. SSIDren karaktere-kopuruak 1 eta 32 artean egon behar du, “_” barne.

Canal Wi-Fi: domeinu desberdinek kanal desberdinak dituzte (1 kanala-1 FCCn (AEB.)/IC (Kanada); 1 kanala-13 ETSIn (Europa); 1 kanala-13 MKKn (Japonia)).

Gehienezko erabiltzaile-kopurua: Wi-Fi-aren gehienezko erabiltzaile-kopurua definitzeko. Gehienezko balioa eta lehenetsia “10” da.

Seguridad: Wi-Fi-aren zifratzea definitzeko.

Hautatu kodetze-modu bat zerrendan, eta sartu pasahitza. “Ninguno” hautatuz gero, Wi-Fi-a duen edozein gailu pasahitza sartu beharrik gabe konektatu ahal izango da gailura.

WEP:

Segurtasuna txikiagoa da. Aurreko Wi-Fi gailuekin baino ez dabil.

Gailua WPA edo WPA2rekin bateragarria ez denean soilik gomendatzen da.

WPA:

Segurtasun handiko estandar bat da, bateragarria Wi-Fi gailu gehienekin. 8 eta 63 karaktere bitarteko ASCII gakoa behar da.

WPA2:

Segurtasun handiko estandar berriago bat da. Wi-Fi gailu berriagoentzako bakarrik balio du. 8 eta 63 karaktere bitarteko ASCII gakoa behar da.

7.2 WPS

WPSak (Wi-Fi Protected Setup) haririk gabeko bezeroa eta gailua haririk gabe konfiguratzeko modu intuitiboago bat eskaintzen du. Ziurtatu bezeroa bateragarria dela WPSarekin.

CP (sakagailuaren konfigurazioa):

1. Luze sakatu gailuaren WPS botoia, pantailan WPS agertu arte.

2. Bezeroan (adibidez, PCan), hautatu WPSa duen Wi-Fi sarea.

(PCaren hornitzaileak emana) eta hautatu CP.

3. Saioa hasteko web-orria (192.168.1.1), Configuración->WPS.

4. Gaitu CP eta sakatu "  "

Oharra: WPS funtzioa ondo hasten bada, informazioa honela agertuko da orrian: **"Funcionamiento correcto de CP"** edo **"Error en CP"**, WPSa konfiguratzean arazoa egon dela adierazteko.

PIN:

1. Luze sakatu gailuaren WPS botoia / pizteko eta itzaltzeko botoia, pantailan WPS agertu arte.

2. Bezeroan (adibidez, PCan), hautatu WPSa duen WiFi sarea.

(PCaren hornitzaileak emana), eta hautatu PINaren metodoa. Ondoren, 8 digituko PIN kode bat sortuko da.

3. Saioa hasteko web-orria (192.168.1.1), Configuración->WPS.

4. Aktibatu PINa, eta sartu 8 digituko PIN kodea.

5. Sakatu **<Aplicar>**.

Oharra: WPS funtzioa ondo hasten bada, informazioa honela agertuko da orrian: **"Se ha enviado el PIN correctamente"** edo **"Error al enviar el PIN"**, WPSa konfiguratzean arazoa egon dela adierazteko.

7.3 Bideratzailea

Orrri honetan, honela ematen da informazioa:

Dirección IP del enrutador: LAN sareko bideratzailearen IP helbidea. Helbide lehenetsia 192.168.1.1 da.

Máscara de subred: bideratzailearen LAN sarearen barruko azpisareko maskara. Lehenetsia 255.255.255.0 da.

Servidor DHCP: DHCP zerbitzariak automatikoki esleituko dizkie IP helbideak sareko gailuei. Konfigurazio lehenetsia Habilitada da.

Grupo IP de DHCP: atzitzeko erabilgarri dauden IP helbideen multzo bat definitzeko.

Tiempo de concesión de DHCP: WiFi-a duen gailu batek esleitu zaion IP helbidea zenbat denboran erabil dezakeen esleipena berri aurretik.

7.4 Hizkuntza

Hizkuntza aldatzeko:

1. Hautatu hizkuntza kontrol-lauki  bidez.

2. Sakatu **<Aplicar>**.

Hizkuntza lehenetsia ingelesa da.

7.5 Diagnostikoa

Sakatu <Reiniciar>, gailua berrabiarazteko.

7.6 Aurreratua

Orri honetan, uneko konfigurazioa gorde dezakezu edo lehendik gordetako konfigurazio bat berrezarri.

Konfigurazioa gordetzeko:

1. Sakatu <Descargar>.
2. Aukeratu uneko konfigurazioa gorde nahi duzun lekua.

Konfigurazioa berrezartzeko:

1. Sakatu <Cargar>.
2. Hautatu lehendik gordetako fitxategi bat, konfigurazioa berrezartzeko.

Berrezartzea

Gailuaren fabrikako jatorrizko konfigurazioa berrezartzeko. Gailuaren beheko aldean berrabiarazteko dagoen botoia –R bat du– ere erabil daiteke.

MACen iragazkia

MACen iragazkia MACeko helbide espezifikoetarako sarbidea kontrolatzeko erabiltzen da.

Hautatu “**Deshabilitado**”: gailu guztiek atzi dezakete sarea.

Hautatu “**Habilitado**”: zerrenda horretako gailuek baino ezin dute atzitu sarea. Konfigurazioa gehitu, editatu edo ezaba dezakezu.

Oharra: MAC zerrendaren gehienezko kopurua 10 da.

8. Bateria kargatzea

Bateria kargatzeko bi modu daude: bata, kargagailu bidez, eta, bestea, PCaren USB kablearen bidez.

Kargatze-abiadura alderdi hauen arabera alda daiteke: gailua 3G sareari konektatuta dagoen ala ez, WiFi-a datuak transmititzen ari den ala ez, eta kargagailura ala PCra dagoen konektatuta. Kargagailua erabiltzea gomendatzen da.

Kargagailua:

Gailua itzalita badago, gehienez 3 ordu beharko ditu.

PCaren USB kablea:

Gailua itzalita badago, gehienez 4 ordu beharko ditu.

Oharra: bateria babesteko, 00 agertzen denean (bateria baxu dagoela adierazten du), kargatu gailua.

9. Bermea

Zure gailua bermatuta dago bi (2) urterako(1), jatorrizko fakturan ageri den erosketa-datatik zenbatzen hasita, erabilera normalean agertzen den akats ororen aurka. Behar bezala beteta aurkeztu behar da faktura hori, garbi adieraziz: izena, modeloa, IMEIa, data eta saltzailea.

Gailuak erabilera normala eragozten dion akatsen bat baldin badu, berehala eman behar diozu horren berri zure saltzaileari, eta, jatorrizko fakturarekin batera, gailua eraman.

Akatsen bat duela egiaztatzen bada, gailua (edo haren piezaren bat)

konpondu egingo da edo aldatu egingo zaizu, zer komeni den. Hiru (3) hilabeteko bermea dute konpondutako gailuek eta haien pieza osagarriek akats horren aurka. Antzeko funtzionaltasuna eskaintzen duten pieza berregokituekin egin daiteke konponketa edo telefono-aldaketa.

Piezen eta eskulanaren kostua sartzen da berme honetan, baina ez beste inolako kosturik.

Berme honek ez ditu estaltzen gailuak eta/edo pieza osagarriek arrazoi hauengatik dituzten akatsak:

1. Gailua erabiltzen den eremu geografikoan aplikatzen diren erabilera- edo instalazio aginduak edo segurtasun-arauak eta teknikoak ez betetzeagatik.
2. TCT Mobile Limited-ek emandakoa edo gomendatutakoa ez den ekipo batera konektatzeagatik.
3. Konponketak edo aldaketak TCT Mobile Limited-ek edo haren filialek edo baimendutako mantentze-zentroak baimendu gabeko herritar partikularrek egin badituzte.
4. Eguraldi txarragatik, ekaitz elektrikoengatik, suteengatik, hezetasunagatik; likido, jaki edo produktu kimikoren bat sartzeagatik, artxiboak deskargatzeagatik, kolpeak emateagatik, goi-tentsioagatik, korrosioagatik, oxidazioagatik eta abarregatik.

Ez dugu gailua konponduko etiketak edo serie-zenbakiak (IMEI) kenduta badaude.

Berme honek ez die eragiten kontsumitzaileak 2003ko uztailaren 10eko 23/2003 Legearen arabera dituen eskubideei.

Inondik ere ez dira izango TCT Mobile Limited edo haren filialak inolako ustekabeko kalteren edo ondorioren erantzule (besteak beste, eragiketen edo jarduera komertzialaren etenarena), baldin eta legeak kalte horien gaineko erantzukizunik egozten ez badigu.

Herralde edo estatu batzuek ez dute uzten ustekabeko kalteak edo ondorioak salbuesten edo murrizten, ezta berme implizituen iraupena mugatzen ere; beraz, litekeena da aipatutako murrizketak edo salbuespenak zuri ez aplikatzea. Zure gailuaren legezko bermearen aplikazioari buruzko erreklamazioen bat egin nahi izanez gero, 2007/11/16 Legeak agintzen duenari jarraiki, ipini gurekin harremanetan bezeroaren arretarako telefonoaren bidez (902 113 119) edo helbide honetara idatziz:

TCT Mobile Europe SAS
Immeuble Le Capitole
Parc des Fontaines
55, avenue des Champs Pierreux
92000 Nanterre
Frantzia

(1) Erabilera-kondizioen eta sarearen konfigurazioaren arabera da bateriaren iraupena. Bateriak hornigai suntsigarritzat jotzen direnez, zehaztasunek diote gailua erosi ondorengo lehen sei (6) hilabeteetan eta 200 kargatzeetan (gutxi asko) izango duela errendimendurik onena zure gailuak.

10. Galderak eta erantzunak

01.

G: Nola pizten/jizaltzen da gailua?

E: Jarri botoia "**Activado**" posizioan, gailua pizteko. Jarri botoia "**Desactivado**" posizioan, gailua itzaltzeko.

02.

G: Zein nabigatzaile dira bateragarriak gailuarekin?

E: Firefox 4.0.1---9.0, Safari 2.0----5.1.2,IE 6.0----9.0, Opera 9.64 11.60; Chrome 5.0---14.0.

03.

G: Zein sistema eragilea dira bateragarriak gailuarekin?

E: Xp/Vista/7; Mac OS X10.5----10.7.

04.

G: Nola konektatzen da gailua?

E: Ireki haririk gabeko sare-konexioen zerrenda, eta hautatu dagokion SSID.

Windows: Sakatu, saguaren eskuineko botoiarekin, ataza-barran dagoen **Conexiones de red inalámbricas**, eta hautatu **Ver redes disponibles**.

Mac: AirPort ikonoaren goitibeherako zerrendan.


Hautatu SSID, goitibeherako zerrendan.

iOS: **Ajustes->Wi-Fi**. Hautatu SSID, eskuragarri dauden sareen zerrendan.

Android: **Ajustes->Conexiones de red inalámbricas->Ajustes** Wi-Fi. Hautatu SSID, eskuragarri dauden sareen zerrendan.

05.

G: Zer egin behar dut SSID ikusten badut, baina konexiorik ez badago?

- E:**
1. Egiaztatu sartu duzun pasahitza zuzena dela.
 2. Sakatu WPS botoia / pizteko edo itzaltzeko botoia, pantaila pizteko eta WiFi-ra zenbat erabiltzaile dauden konektatuta ikusteko (gehienez 10 )
 3. Egiaztatu WPS-segurtasuna gaituta dagoela zure PCan. Hala badago, begiratu ea gailua PCtik WPS bat jaso zain dagoen.

06.

G: Zer egin behar dut pantailan **Sin servicio** agertzen bada?

E: Hauek izan daitezke arrazoiak:

1. Tokiko seinalea ezegonkorra izatea
2. Hardware-arazoak.

Aukera hauek dituzu:

1. Eraikin baten barruan bazaude edo seinalea blokeatzen egon daitekeen egitura batetik gertu, aldatu gailuaren kokapena. Adibidez, saiatu gailua leiho batetik gertu jartzen.
2. Hardwarea egiaztatu edo beste gailu bat erabili, eta saiatu berriro.
3. Gailuaren egoera zein den begiratu, errore-mezurik edo edozein motatako informaziorik dagoen ikusteko.

07.

G: Zer egin behar du WiFi-aren gakoa ahaztu badut?

E: Gailuaren fabrikako jatorrizko konfigurazioa berrezar dezakezu, gailuaren beheko aldean berrabiarazteko dagoen botoia –R bat du– luze sakatuta.

08.

G: Zergatik ez da agertzen SSID haririk gabeko sareen zerrendan?

E: Honela egiaztatu dezakezu gailua:

- Gailuaren egoera zein den begiratu, errore-mezurik edo edozein motatako informaziorik dagoen ikusteko.

- Eguneratu ordenagailuaren sare-zerrenda.

Windows: **Conexiones de redes inalámbricas** pantailaren ezker aldean, sakatu **Actualizar lista de redes**.

Oraindik ere ez badabil, hau egin dezakezu:

1. Ireki **Conexiones de red**.
2. Egin klik saguaren eskuineko botoiarekin **Conexiones de red inalámbricas**-en, eta hautatu **Propiedades**.
3. Egin klik **Redes inalámbricas** fitxan.
4. Ezabatu erabili gabeko haririk gabeko konexioak **Redes preferidas** zerrendan, eta sakatu **Aceptar**.
5. Berrabiarazi ordenagailua.

Mac: saiatu ordenagailua berrabiarazita.

09.

G: Zer egin behar dut pantailan “No hay SIM” edo “SIM no válida” mezuek agertzen badira?

E: Hauek izan daitezke arrazoiak:

1. SIM txartelik ez dago sartuta edo gaizki sartuta dago.
2. SIM txartela desaktibatuta dago.

Aukera hauek dituzu:

1. SIM txartela kendu, eta berriro sartu. Ez ukitu kontaktu-puntuak SIM txartela manipulatzeko.
2. Operadorearekin harremanetan jarri, laguntza eskatzeko.

10.

G: Zer egin behar dut pantailan “**Bloqueo del PIN**” edo “**Bloqueo del PUK**” mezuek agertzen badira?

E: SIM txartela blokeatuta dago. Hasi saioa web-orrian, eta sartu operadoreak emandako PIN edo PUK kodea.

Oharra: PIN kodea hiru bider gaizki sartzen baduzu, PUK kodea sartu behar duzu, eta PUK kodea hamar bider gaizki sartzen baduzu, SIM txartela betiko ezabatuko da.

11.

G: Nola jakin dezaket zein diren unean erabiltzen ari naizen sare-teknologia eta hornitzailea?

E:

1. Ukitu WPS botoia / pizteko edo itzaltzeko botoia, pantaila pizteko.
2G: Edge/GPRS 3G: UMTS/HSDPA/HSUPA 3G: HSPA+
2. Hasi saioa web-nabigatzailean, eta joan **Conexión->Estado de la conexión** aukerara.

12.

G: Nola konekta naiteke 3G sarera?

E: Sakatu bi segundoz konektatzeko botoia edo hasi saioa web-nabigatzailean, joan **Conexión->Estado de la conexión**-era, eta sakatu **“Conectar”**.

13.

G: Nola deskonekta naiteke 3G saretik?

E: Sakatu bi segundo baino gehiagoz deskonektatzeko botoia edo hasi saioa web-nabigatzailean, joan **Conexión->Estado de la conexión**-era, eta sakatu **“Desconectar”**.

14.

G: Nola jar dezaket PIN berri bat SIM txartelarentzat?

E: Hasi saioa web-nabigatzailean, eta **Conexión->Gestión del PIN** aukerara.

15.

G: Non aurkitu dezaket Interneteko konektagarritasunari eta WiFi-aren konfigurazioari buruzko informazioa?

E: Hasi saioa web-nabigatzailean, eta joan **Conexión->Estado de la conexión** aukerara.

16.

G: Nola jakin dezaket zenbat denbora egin dudan lehen?

E: Hasi saioa web-nabigatzailean, eta **Conexión->Historial de uso** aukerara.

17.

G: Nola bilatu dezaket sarea eskuz?

E: Hasi saioa nabigatzailean, zoaz **Conexión->Red** aukerara eta hautatu sarea hautatzeko eskuzko modua, sakatu **<Aplicar>** eta, gero, **<Actualizar>**.

18.

G: Nola jakin dezaket zer modelo-zenbaki eta zer firmware-bertsio dituen gailuak?

E: Hasi saioa web-bilatzailean, eta zoaz **Configuración->Diagnóstico** aukerara.

19.

G: Babeskopia bat egin dezaket eta konfigurazioa berrezarri?

E: Hasi saioa web-bilatzailean, azoaz **Configuración->Configuración avanzada** aukerara, sakatu **“Descargar”** babeskopia egiteko, eta, gero, sakatu **“Cargar”**, konfigurazioa berrezartzeko.

20.

G: Nola konfigura dezaket gailua piztutakoan automatikoki Internetera konektatzeko?

E: Hasi saioa web-nabigatzailean, eta aukeratu **Guía rápida->Admin. Configuración-> Modo de conexión->Automático**

21.

G: Nola alda dezaket SSID?

E: Hasi saioa web-nabigatzailean, eta aukeratu **Guía rápida->Admin. Configuración-> SSID.**

22.

G: Nola alda dezaket saioa hasteko pasahitza?

E: Hasi saioa web-nabigatzailean, eta aukeratu **Guía rápida->Admin. Configuración-> Contraseña de inicio de sesión.**

23.

G: Nola alda dezaket WiFi-aren gakoa?

E: Hasi saioa erabiltzailearen web-interfazeaz, eta zoaz **Guía rápida->Admin. Configuración** aukerara, eta sakatu **“Si-guiente”** WiFi-aren gakoa konfiguratzeko edo aukeratu **Configuración->Wi-Fi->Seguridad.**

24.

G: Nola parteka dezaket SD fitxategia?

E: Hasi saioa erabiltzailearen web-interfazeaz, zoaz **Tarjeta SD->Compartir** aukerara, eta, **Compartir tarjeta SD** moduan, hautatu Interneten partekatzeko modua.

25.

G: Nola kargatu dezaket fitxategia SD txartelean?

E: Hasi saioa erabiltzailearen web-interfazeaz, eta zoaz **Tarjeta SD->Administración de archivos** aukerara, gero, sakatu **“Navegador”** fitxategia hautatzeko, eta, ondoren, **“Cargar”**.

11. Ohartarazpenak

Gailu elektronikoa

Itzali gailua doitasun handiko gailu elektronikoetatik hurbil zaudenean. Baliteke haririk gabeko gailuak halako gailuen errendimenduari eragitea. Gailu batzuek audiofonoiei, taupada-markagailuei, suteak detektatzeko sistemei, ate automatikoei eta bestelako gailu elektronikoei eragitea. Gailu mediko elektronikoren bat erabiltzen baduzu, galdetu gailuaren fabrikatzaileari, haren uhin elektromagnetikoen gailuaren funtzionamenduari eragin diezaioketen jakiteko.

Ospitalea

Jarri arreta alderdi hauei ospitaletan edo osasun-zentroetan:

Ez eraman gailua ebakuntza-geletara, arreta intentsiboko unitateetara edo arreta koronarioko unitateetara.

Ez erabili haririk gabeko gailua hura erabiltzea debekatua dagoen eta tratamendu medikoak egiten dituzten lekuetan.

Biltegitzeko lekua

Ez jarri bitarteko magnetikoak haririk gabeko gailutik gertu (esaterako, txartel magnetikoak edo disketeak). Haririk gabeko gailuaren erradiazioak haietan gordetako informazioa ezaba dezake.

Ez jarri gailua eta haren osagarriak eremu elektromagnetiko handiko lekuetan, adibidez, indukziozko sukaldeen eta mikrouhinetan. Horrek akats bat eragin baitezake zirkuituan edo sute edo leherketa bat.

Ez utzi haririk gabeko gailua bero edo hotz handiko lekuetan. Horrek produktuak gaizki funtzionatzea eragin dezake, edo sute bat edo leherketa bat.

Ez eman kolpe gogorrik haririk gabeko gailuari. Horrek produktuak gaizki funtzionatzea eragin dezake, edo gehiegi berotzea edo sute bat edo leherketa bat.

Haurren segurtasuna

Ez jarri haririk gabeko gailua haurren eskueran. Ez utzi haurrei haririk gabeko gailua erabiltzen aurretik jarraibiderik eman gabe.

Ez utzi haurrei gailua ahoan sartzen.

Ez utzi haurrei pieza txikiak ukitzen. Irensten badituzte, ito daitezke edo kontrako eztarrira joan.

Funtzionatzeko lekua

> Haririk gabeko gailu honek ezin du ura jasan. Uretatik urrun izan. Babestu haririk gabeko gailua uretatik edo lurruntetik. Ez ukitu haririk gabeko gailua eskuak bustita dituzula, zirkuitulabur bat sor daiteke, gailuaren funtzionamenduan kaltea egin dezake eta erabiltzaileari deskarga elektriko bat sor diezaioke.

Ez erabili haririk gabeko gailua hautsa, hezetasuna edo zikinkeria dagoen lekuetan edo eremu magnetikoak dituzten lekuetan, zirkuituaren funtzionamendua kaltea egin baitezake.

Ekaitz-egunetan, ez erabili haririk gabeko gailua kanpoaldean.

Haririk gabeko gailuak interferentziak sor ditzake gertuko telebistekin, irratiekin eta PCekin.

Irrati-maiztasuneko eta irradiazioko nazioarteko arauen arabera, erabilik soilik fabrikatzaileak onartutako osagarriak haririk gabeko gailuarekin.

Segurtasuna ibilgailuetan

Ez erabili gailua gidatzen ari zarela.

- Gailua piztean, gailuak uhin elektromagnetikoak igortzen ditu, eta haiek ibilgailuen sistema elektronikoetan interferentziak sor ditzake; esaterako, balaztak blokeatzea eragozten duen ABS sistema edo airbagak. Arazorik ez dagoela ziurtatzeko, ez jarri gailua autoaren aginte-mahaiaren goiko aldean edo airbaga zabaltzeko lekuan.
- Jarri harremanetan ibilgailuaren fabrikatzailearekin edo kontzesionarioarekin, aginte-mahaia gailuaren irrati-maiztasunaren aurka behar bezala babestuta dagoela ziurtatzeko.

Erabiltzeko baldintzak

- Itzali gailua hegazkinean sartu aurretik.
- Itzali gailua osasun-etxeetan, horretarako dauden eremuetan izan ezik. Gailu hau edo beste ekipo batzuk erabiltzeak gailu elektriko eta elektronikoaren edo irrati-maiztasunak erabiltzen dituzten gailuen funtzionamenduan eragin dezake.
- Itzali gailua gasetara edo suak har dezakeen likidoetara hurbiltzean. Errespetatu erregai-biltegietan, gasolina-zerbitzuguneetan, produktu kimikoen fabriketan eta leherketa-arriskua dagoen lekuetan agertzen diren arauak. Piztuta dagoenean, ez jarri gailua inoiz tresna mediko batetik (taupada-markagailua, audiofona, intulina-ponpa, etab.) 15 cm-ra baino gutxiagora.

Ez utzi haurrei gailu hau erabiltzen zu inguruan ez bazaude.

Karkasa ordezkatzean, kontuan izan erreakzio alergikoak eragin ditzaketen substantziak eduki ditzakeela gailuak.

- Kontuz erabili beti gailua, eta hautsik ez dagoen leku garbi batean gorde.

Ez ireki edo desmuntatu zeuk gailua eta ez saiatu zeu konpontzen.

Ez utzi lurrera erortzen, ez jaurti eta ez tolestu.

- Ez pintatu gailua.

Bilguneak:



Gailuak duen ikur honek esan nahi du balio-bizitza amaitutakoan bilgune hauetara eraman behar dela:

Horrelako ekipoentzako edukiontzi bereziak dituzten hondakinatarako udal-zentroetara.

Saltokietako edukiontzietara.

Horrela, birziklatu ahal izango dira, substantziak ingurumenean botatzea saihesteko eta haien osagaiak berriro erabiltzeko.

Europar Batasuneko herrialdeak:

Bilgune horiek doan erabil daitezke.

Ikur hori duten produktu guztiak eraman behar dira bilgune horietara.

Europar Batasunetik kanpo dauden herrialdeak:

Herrialde edo eskualde horretan biltzeko eta birziklatzeko instalazioak badaude, produktu horiek ez dira bota behar zakarrontzi arruntetara.

Bilgunetara eraman behar dira, birziklatzera. Estatu Batuetan, ikus www.recyclewirelessphones.org haririk gabeko gailuak birziklatzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko.

Lapurreten aurkako babesa

Gailu hau IMEI zenbakiarekin (serie-zenbakia) identifikatuta dago; paketearen etiketan dago zenbaki hori. Gailua erabiltzen duzun lehen aldian zenbakia idatziz jasotzea gomendatzen dizugu. Zer zenbaki duen jakiteko, hasi saioa web-nabigatzailea, eta zoaz **“Configuración”**-> **“Diagnóstico”** aukerara.

